

TOLOSA: GAZTEEN AHOZKOTASUNAREN LABORATEGI (I)

2011.06.03

Zabala Alberdi, Josune eta Ayerza Mujika, Maitane

Mintzola Fundazioa

LABURPENA

Tolosako udalak euskara eta bere erabileraren gainean egindako gogoetaren ondorio izan da Mintzola Fundazioak 2010ean abiatu berri duen ikerketa egitasmoa.

Mintzola Fundazioaren ipar nagusiak ahozkotasunaren ikerketa eta gizarteratzea diren neurrian, lau urteko ikerketa egitasmoa aurkeztu eta lanari ekin dio Tolosako ikastetxe guztietan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gazteen hizkuntza jarrera zein jokabideak, erabilera maiztasuna eta konpetentziak aztertu, haien gainean esku hartu eta ahozkotasuna ikastetxeetan eta gazteen artean lantzeko gako nagusiak bilatzeko.

Gazteek euskaraz eta ahoz gehiago zein egokiago mintzatzeko helburuz eraiki da laborategi dinamiko bihurtu nahi izan dugun ikerketa. Ikerketa-ekintzan oinarritzen da: ikerketa eta jarduna bateratzen ditu, protagonistak gogoetara, hausnarketara eta aldaketak egitera bideratzen ditu. Laborategia Tolosan lekutua bada ere, esperientzia honetako emaitzak eta esperientziak eurak baliagarri izango direla aurreikusten da gisa honetako helburuak dituen beste erakunde, herri edo ikastetxeetan aurrera eramateko.

Izan ere, ikerketa honen harira ateratako emaitzekin lortu nahi da ahozkotasuna ikastetxeetan (DBHn) lantzeko praktika onen proposamenak egitea, Tolosan ez ezik, hedapena izan dezan gainerako lurraldeetan ere.

HITZA GAKOAK: ahozkotasuna, gazteak, ikerketa aplikatua, esku hartzea, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

0.- SARRERA

Tolosa ahozketasunaren lantegi bihurtzeko egitasmoa da ondorengo lerroetan aurkezten dena. Euskaraz eta ahoz gehiago zein egokiago mintzatzeko helburuz eraikia. Egitasmo pilotua da gazteengan euskararekiko jokabideak, erabilera maiztasuna eta kalitatea hobetzea helburu duena. Ikerketa-ekintzan oinarritzen den proposamen berritzailea. Ikerketa eta jarduna bateratzen ditu, protagonistak gogoetara, hausnarketara eta aldaketak egitera bideratzen ditu. Labur esanik, euskararen ahozketasunaren laborategi dinamiko bat eraikitzeko bideratu den lanaren aurkezpena da honakoa.

Laborategia Tolosan lekutua izan bada ere, esperientzia honetako emaitzak eta esperientziak eurak baliagarri izango direla aurreikusten da gisa honetako helburuak dituen beste erakunde, herri edo ikastetxeetan aurrera eramateko.

Ikerketa-ekintza metodologia erabiliz Tolosako gazteen ahozko erabilera, jokabideak eta konpetentziak zein diren ikertuko da, eremu horietan gazteekin esku hartuko dugu tailerrak edo eskolak emanez, une oro ebaluatuko dira jarduera guztiak eta urteroko emaitzak baliatuko dira hurrengo urteetan hobekuntza proposamenak egin eta jarduerak berreraikitzeke.

Proposamen osoa aurrera eraman dezagun lau urtetako laborategia osatzea aurreikusten da (2010etik 2014ra artekoa). Tolosako gazteek, ikastetxeek, Jarraipen Batzordeko kideek eta Mintzola Fundazioak osatuko dute lan taldea.

0.1.- ZERGATIK ETA ZERTARAKO TOLOSA?

Proiektu pilotu honek Tolosa du habia, Tolosako udalaren arduratik ernaldu baita laborategia eraikitzeko lehen ahalegina. Izan ere, Tolosako udalaren euskara teknikaria Mintzola Fundazioarekin jarri zen harremanetan herri mailan antzeman zituzten beharren berri eman eta ahozketasunaren gainean zuten ardura adierazteko. Herriko euskararen gainean zuten kezka (euskararen erabilera maiztasuna zein kalitatea beheherantz doaz azken urteotan) irtenbidea bilatu nahian Mintzolari proposamen bat

idazteko eskatu zitzaion, eta Mintzola Fundazioak erantzun egin zion Tolosako eskakizunari esparru honek bere ikerketa barrutiarekin bat egiten baitzuen.

Alde horretatik, Tolosak eskain diezagukeen errealitate anitzak aztertzea erabaki zuen Mintzolak errealitate askotarikoak eskaintzen baititu Tolosak euskarari eta ahozkotasanari dagokionean.

Herri honetan, hiru ikastetxe dira: *Laskurain*, *Orixe* eta *Hirukide*. Ikastetxe hauen errealitatea ezberdina da euskararen erabilerari dagokionez eta aniztasun hori esanguratsua izan daiteke gure ikerketarentzat. Tolosako udalak eskainitako erabilera datuak behatu besterik ez dago ikastetxe bakoitzak bere errealitate propioa duela jabetzeko.

1. TAULA

IKASTETXEETAKO ERABILERA MAIZTASUNA

Ikastetxea	Erabilera orokorra	Ikasmailaren araberako erabilera	Eskolaz kanpoko jardueretan
a	%65,66	DBH %58,08 Batxilergoan %74,70	%56,99
b	%98,82	DBH %97,66 Batxilergoan %96,80	%95,28
c	%39,56	DBH %31,09 Batxilergoan eta Lanbide Heziketan %63,07	%39,56

Taulan ikus daitekeen moduan Tolosa herriak eskaintzen digun errealitate aniztasuna oso aberatsa da proiektu pilotu baten habia izateko, izan ere, proiektu honek beste herrientzako ere lagungarri izan nahi duen heinean ezinbestekoa da errealitate anitza eskainiko digun herria hautatzea.

1.- AHOZKO LABORATEGIAREN OINARRIA

Azken hamarkadan arrakasta bizia hartzen ari den ikerketa-ekintzaren (J. Elliott, 1993) metodologian oinarritzen den laborategia eraikitzea da egitasmo honen oinarri nagusia. Hautatutako metodologiaren abantailarik handiena da landutako edozein egoera etengabe izaten dela ikertu edo aztertua, eta bertatik ateratako datuek laguntzen dutela ondorengo lanketak birmoldatu eta hobetzen. Ikerketa-ekintzan praktika ardaztat hartzen da. Prozesua praktikatik abiatzen da eta praktika hausnarketa eta teoria berria eraikitzeko tresna gisa hartzen da. Irakasleekin lan egiteko bidea da, irakasleen gain lan egiteko modua baino areago. Tolosan gauzatzen ari garen laborategiak, beraz, bi helduleku nagusi ditu: bata ikerketa eta bestea ekintza.

Zer lortzea nahi dugu horrela? Ahozko lanketaren gainean ditugun aurrezagutzak lagun, erantzun zientifikoak eskuratzea ahozko generoen ikaskuntza-irakaskuntzaren eta euskarazko ahozko generoak erabiltzeko jokabide eta erabileren gainean.

Hamabi urtetik hamaseira bitarteko gazteen hizkuntza jokabide eta ahozko konpetentziak aztertu, hobetu eta sustatu nahi dira. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleekin dihardugu lanean. Izan ere, ikasle hauek une preziatuan daude euren hizkuntza jarrera eta erabilera erabakitzeko. Garai inguru horretan hasten dira gazteak lagun artean ibiltzen, euren arteko hizkuntza zein izango den erabakitzen... Urteak joan ahala, gainera, kognitiboki erraz edo zailagoak diren lanketak egin behar izaten dira ahoz: jendaurrean azalpenak eman, iritziak eman edo argudiatu, kontatu... Garai aberatsa deritzogu, beraz, gisa horretako beharrei erantzungo dien esku-hartzea proposatzeko, kontuan harturik bertan egingo diren hainbat eta hainbat lanketa lagungarri (edo transferigarri) izango direla gainerako hizkuntzetan ere.

Lan hau guztia aurrera eramateko Tolosako ikastetxeak, Jarraipen Batzordeko adituen ekarpenak eta Mintzola Fundazioaren landa-lana bateratzen dira. Lau urtetako egitasmoa izango da non urtez urte emaitzak baloratu eta esku-hartzea birmoldatuko den. Azken urterako, hala, ahozkotasuna landu eta sustatzeko diseinu oso bat izango dugu eskuartean beste edozein eremutan hedatua izan daitekeena.

2.- IKERKETAREN HELBURUAK

Hizkuntzaren ikaskuntza-irakaskuntzaren errealitatean, hiru esparruren arteko elkarrekintzari ematen zaio garrantzia *Hiruki Didaktikoa* kontzeptuari erreparatuta (Chevallard, 1985): irakaslea, ikaslea eta irakas/ikas-gai den objektua –ahozko euskara, gure kasuan–. Hiru esparru hauen gainean egin da hainbat ikerketa, jaso dugu hainbat ezagutza batez ere ikasleari zein irakas/ikas-gai den objektuari begira. Gure laborategian, urrats bat gehiago eman nahi dugu aurrera, eta oinarri bikoitza ezarri diogu: bata da ikasle gazteen jokabide eta kompetentzietan erreparatzea eta haiek eraldatzea euskarazko ahozko hizkuntzaren erabilera eta kompetentzien onuran; bestea berriz, irakaskuntza metodologiaren gaineko gogoeta zein praktikak bideratu eta ontzeko ahalegina egitea. Helburu bikoitz hau honako bi ideiatan laburtzen dugu:

1. Ikastetxeetako gazteen jokabide eta kompetentziak zein diren aztertu eta lantzea.
2. Ahozko euskara irakasteko praktika onak zein diren identifikatzea.

Hein berean, honako hiru helmugetara begira jarrita gaude ikerketan abiatu garen unetik beretik:

- Ahozko hizkuntzaren ikaskuntza/irakaskuntza prozesuan eragiten duten aldagaiak zein diren ezagutu nahi dugu: DBHko gazteen jokabideak, kompetentziak, irakaste metodologia eta tresnak...
- Errealitate soziolinguistiko anitzen eragina zein eta zenbaterainokoa den jakin nahi dugu ahozko hizkuntzaren ikas/irakastearen zein garapenean.
- Euskaraz/ahoz komunikatzeko zenbait trebetasun eskura ditzaten nahi dugu testuinguru formal eta informaletan.

Horretarako guztirako, praktikaren gaineko gogoeta bideratu eta berriz ere praktikara itzultzea zilegi zaigu; halaber, onartzea hasieran jarritako helburuak alagarri izango direla ikerketa urratsak eman ahala. Dena dela, ikerketaren abiapuntuan gaudelarik, honela zehaztu ditugu helburu nagusien jarraibideak.

2.1.- HELBURU ZEHATZAK

2.1.1. Ikasleen jokabide eta kompetentziak

Ahozko komunikazioaren gainean duten jokabidea aztertu eta positibitzea

- Nor da, gure ustez, komunikatzaile ona? Zer lortzen du gugan erakargarria?
- Zein sentipen ditugu ahoz jendaurrean jartzean?
- Zein hizkuntzatan komunikatzen gara ondoen? Zergatik?
- Ahoz komunikatzen garenean, zertan gozatzen dugu eta zer da jasangaitz? Zein dira egoera horiek?

Euskarazko ahozko generoez jabetzea

- Zein dira euskarazko ahozko generoak?
- Zein garrantzia dute euskaraz ahozko generoek? Erabiltzen ote ditugu? Nork erabiltzen ditu? Nola eta noiz?
- Zertan ezberdintzen dira euskarazko ahozko eta idatzizko generoak?
- Nola eta zertarako baliatzen ditugu ahozko generoak komunikazioan?

Euskaraz ahozko komunikazioan trebatzea, aintzat hartuz gainerako hizkuntzetan baliagarri izango diren kompetentziak eskuratuko direla (hizkuntza transferentziak)

- Testuinguruaren garrantzia komunikazioan.
- Ahozkotasuna testuinguruaren arabera: jarduera formalak eta informalak.
- Ahozkotasunean trebatzeko tresnak. Testu motak eta estrategiak ahozkoan.
- Ahozko praktika ezberdinak testuinguru askotarikoetan.

Euskaraz ahozko erabilera ugartzea eta kalitatez hobetzea

- Euskararen erabileraren gaineko gogoetak eta praktikak.
- Zenbat hitz egiten dugu eta noiz, norekin, nola?
- Zertarako landu ahozkotasuna?

- Zertan hobe genezake gure erabilera maiztasuna?
- Zertarako hobetu gure ahozko komunikazioa? Eta nola egiten da hori?

2.1.2. Ikaskuntza/irakaskuntza metodologiak

Ikerketa-ekintza metodologia landu eta garatzea

- Metodologiaren ekarpenak baliatzea aintzat hartuz unean uneko prozedurak eta errealitatea zein diren.
- Irtendako gogoeten emaitzak une bakoitzeko azaleratzea.
- Proposamen berriak berreraikitzea.
- Irtendak eta ondorio berriak gogoeta eta bere ondorengo praktika bihurtzea.

Irakaslearen rolaren garrantzia aztertu eta esku hartzearen gaineko gogoeta piztea

- Irakasle/behatzailearen praktikak aztertu eta izendatzea.
- Tresna eraginkorrak eraikitzea praktikaren gaineko gogoeta pizteko.
- Esku hartze mota ezberdinak praktikan jarri eta ebaluatzea: bakoitza bere bidetik eta konparazio sistemaren bitartez.

Ahozkoaren didaktikan, metodologia garatzea eta bere kontzientzia hartzea

- Hasierako diagnosiaren arabera esku-hartze proposamenak.
- Esku hartzeen gauzatzea: behaketa, analisisa eta ondorioak.
- Urtez urteko ebaluazioa eta hobekuntza proposamenak.
- Metodologiaren analisisa, ebaluazioa eta ondorioak.
- Esku hartze eta metodologiaren azken diseinua.

Ahozko hizkuntza ikastetxeetan lantzeko materiala sortzea: jokabideak eta kompetentziak

- Prozesu osoan zehar materiala sortu, ebaluatu eta berregin.
- Prozesuaren amaierarako, helburu zein edukien proposamen osoa eta material osatu bat erdietsi DBHn lantzeko (edo hezkuntza ez arautuan) baliagarria izango dena.
- Esku hartze eta metodologiaren azken diseinua.

Esanak esan, izaera eta erantzun bikoitzeko ikerketa da Tolosako laborategian landu nahi dena: ikasleei eta irakasleei begirakoa. Gazteen jokabide eta kompetentziak zein diren aztertu eta euskararen erabilera egokia sustatzeko baliabideak bilatzeko eraikia. Irakaslearen rola aztertu eta haren esku hartzeaz gogoeta egiten duena, bidean aurkitzen diren praktika onak jaso eta modu ordenatuan aurkeztu nahi dituena.

Helburu zehatzetan bakundu dira abiapuntuan jarritako xedeak. Une honetan, galdera edo hipotesi zantzuz ezarriak dira horietatik ekingo baitiegu tailer eta esku hartzei. Egitasmoa sakonduz doan heinean, galdera hauek guztiak xehatzea da beharrik garrantzitsuena, eta ziur asko, lanerako tresnarik interesgarri eta emankorra.

3.- LABORATEGIAREN DISEINUA

Tolosa laborategi bihurtuz, ahozkoatasuna gazteengan bultzatu eta erabilera kompetentziak aberastea da egitasmo honen desio handiena, eta honelaxe irudikatzen ditugu Tolosako egitasmoan gauzatzen ari garen gai aipagarriak:

- 1.- Tolosako ikastetxeak ahozkoaren lantegi edo laborategi bihurtzea: Tolosako ikastetxe guztiak bihurtu dira laborategi; errealitate ezberdin guztiak ditugu behagai.
- 2.- DBHko gazteei zuzenduriko ikerketa da: 12-16 urte bitarteko gazteekin bideratzen ari garena.
- 3.- Lau urteko jarduna gauzatzea espero da, honela esku hartuta:

2. TAULA
ESKU HARTZEA URTEZ URTE

	DBH 1	DBH 2	DBH 3	DBH 4
2010-2011	X		X	
2011-2012	X	X	X	X
2012-2013	X	X	X	X
2013-2014	X	X	X	X

2010/2011 ikasturtean, DBH 1 eta DBH 3ko ikasleak, orotara, 22 gela.

2011tik aurrera, DBH 1, DBH 2, DBH 3 eta DBH 4ko ikasleak, orotara, 44 gela.

2010/2011 ikasturtean ikasgela bakoitzeko 21 ordu egin dira landa lanean:

Hasierako diagnostikoa: 3 ordu gelako.

Esku hartzea: 15 ordu gelako.

Ebaluazioa: 3 ordu gelako.

4.- Ikerketa-prozesuan gai hauek guztiak lantzeko material didaktikoa eraiki dute ikertzaileek.

5.- Mintzola Fundazioak ikastetxeko arduradunekin harremanetan lan egiten du. Mintzola Fundazioaren ikertzaileek ikasleen eta proiektuaren arteko zubi-lana egiten dute: ikerketa bera gauzatu, emaitzak azalatu, ikastetxeko arduradun eta ikasleekin harremana bultzatu, ideia eta proposamen berriak aurrera eraman, unibertsitateko adituen proposamenak garatu, etab.

6.- Ikastetxe bakoitzarekin harremanetan zehazten da ikerketa lanaren egutegia.

7.- Lau urteko jardunari esker ikusi ahal izango da lehen urteko diagnostikotik azkenera bitartean zein hobekuntza eta aurrerapen egin diren gazteen jokabideetan, erabilera

maiztasunean eta konpetentzietan. Horrez gain, ondorioztatu ahal izango dira ikerketaren baliagarritasuna eta alderdi metodologikoan izan diren aurrerapausoak.

Tolosako laborategian aztertu eta landuak lagun, etorkizuneko esku hartze edo behar ezberdinen eredu izango dira hainbat emaitza. Bertatik ateratako ondorioetatik euskararen ahozotasuna sustatzeko praktika-onen diseinua eraikitzeak aukera izango da, baliagarri izango dena beste eremu eta beharrei erantzuteko.

Lan honen bitartez jasotako emaitzak maila diakronikoan eta sinkronikoan aztertuko dira. Izan ere, 2010ean 12-13 urte izango dituen gazteak 16-17 urte artean zertan garatu duen ikusi ahal izango dugu ardatz diakronikoari dagozkion datuak aztertuz (2010/11tik 2013/14ra egindako aurrerapausoen analisisia eginez). Urte bakoitzean egingo den lanari esker, berriz, dimentsio sinkronikoan ateratako emaitzak ere lortuko dira, testuinguru ezberdin bakoitzean gertatzen dena deskribatzeko gai izango gara.

Horrez gain, 2011/12 ikasturtetik aurrera 12-13 urtetatik 16/17 urtera arteko gazte guztien datuak izango ditugu, eta urtez urte, adinez adin egindako esku hartzeen emaitzak ere bai. Bigarren urtetik aurrera, beraz, gure ikuspegia zabalduz eta metodologiaren gaineko gogoetak aberastuz joango dira. Azken batean, ikerketan parte hartuko duten ikasgela eta gazteen datu guztiak izango baititugu.

3.1.- EKARPEN OSAGARRIAK

Nahiera horrekin batera, badira zilegi eta interesgarri diren beste lanketa batzuk ere. Arestian aipatu dugun oinarritzko lanaren osagarri dira ondorengo lerroetan zerrendatu ditugunak, Tolosako laborategian bezala, gisa honetako helburuak bideratzeko proposatzen ditugunak:

a. Material didaktikoa sortu

12-17 urte bitarteko gazteentzat euskarazko ahozko generoak lan daitezten. Tolosako egitasmoari begira egingo den lana baliagarri izan daiteke bestelako herri edo ikastetxeetan ere erabiltzeko. Bide bat urra liteke haren ekoizpen eta zabalkundeari begira, non eta oinarri hartuko den Tolosako proiektu pilotua.

b. Esku-hartze eta trebakuntza (motibazio) ikastaroak hezkuntza araututik kanpoko guneetan

Tolosan bertan edo herritik kanpo, helburu berdindun ikastaroak eskain litezke ikerketa-ekintza unean jasoko diren emaitzak aintzat hartuz. Egokia izan daiteke, adibidez, gazte-gunetan gai honi lotutako tailer edo lehiaketa erakargarriak proposatzea.

c. Herrian bertan euskarazko tradiziozko generoen eskaintza zabaltzea

Aisialdiko unetarako (ipuin kontaketak, antzerkiak, bertso-saioak...), eta partaidetza sustatzea herriko euskara elkarteetatik, ikastetxeetatik, tailerretan gauzatuko diren jardueretatik...

d. Ikastetxeko irakasleentzako prestakuntza eta proposamenak

Ikastetxean interesgarri ikusiko balitz, ikastaro ezberdinak eskain litezke irakasleen formazioa aberasteko: ahozko generoen ikaskuntza/irakaskuntzaz, material didaktikoa erabiltzeko bidez, ikus-entzunezko baliabideen garrantziaz, hizkuntza jarreraren lanketaz, Tolosako ikerketaren norabide eta emaitzez...

e. Ahozkotasuna bultzatzeko proposamenak

Eskolan bertako eta eskolaz kanpoko jarduerak proposa litezke ikastetxean gazteen ahozko jarduna bultzatzeko. Horretarako, beharrezko izango litzateke teknikariaren eta irakasleen artean lankidetzaren bideratzea.

f. Diagnostikoaren emaitzak eta ondorioak

Herrian bertan eta urtero ikasturtean zehar egindako ikerketaren emaitzak aurkeztea garrantzitsua litzateke egitasmoarekiko interesa pizteko eta inplikazioa sustatzeko. Emaitza horietatik aterako dira hurrengo ikasturtean landu eta hobetu beharreko jarduerak eta helburuak.

4.- IKERKETA METODOLOGIA

Jakina den bezala, ikerketa-ekintzan oinarritzen da gure laborategia, beraz, ikertu ahala garatuko da ekoizpena ere. Metodologia hau zertan den argiaraziko digu egitasmoaren faseak aurkezteak, baina horren aurretik hainbat argibide zerrendatuko ditugu:

- **Urte guztietan** gauzatuko dira **3 jarduera erabakigarri**:

1.- Abiapuntuko egoeraren berri emango digun informazio bilketa galdetegiekin eta ikasleekin lantzeko sortu diren tailerren bitartez. Hasierako lanaren helburu nagusia da ikerketa-gai izango diren alor nagusi hauek aztertu eta datu kuantitatibo zein kualitatiboak eskuratzea honako aldagaiei dagokienean:

- Ikasleen hizkuntza jokabideak eta ohiturak (euskaraz eta ahoz komunikatzearen gainean, batik bat).
- Ahozko generoen gainean duten jakintza (ikasleek ahozkotasunaz dituzten aurrezagutzak zein diren jakin nahi dugu).
- Ahozko komunikazioaren kompetentziak (ikasleen kompetentzia maila).

2.- Bigarren lana da lehenengo lanetik ateratako ondorioetatik esku hartzea gauzatzea, hau da, jasotako informazioarekin ahozko jarduerak gauzatzea. Jarduera horietan lantzen dira aurrez jasotako informazioari zuzenean lotutako edukiak: hizkuntzaren jokabide eta erabilerari lotuak; ahozko kompetentziari lotuak, komunikazioari lotuak...

3.- Hirugarrena (eta ikasturte bakoitzean egingo den azken lana). Aurreko fasetan egindako lanaren ebaluazioa egiten da. Hasieran jasotako datuak berriz berreskuratu eta ikasturtearen amaierako emaitzekin alderatzen da. Informazio hau lagungarri izango zaigu hurrengo urterako datuak berreraiki eta materiala sortzeko garaian.

Lehen urtea ikerketaren abiapuntua denez, DBHko ziklo bakoitzaren lehen mailekin hasi gara esku hartzen, eta bertatik ateratako datuak lagungarri izango


zaizkigu datozen urteetan mailaz maila esku hartzea eta material didaktikoa eraginkorragoak izan daitezzen.

- Ikerketa gauzatu ahala, ahozko generoak lantzeko sekuentzia didaktikoak edo material didaktikoak sortuko dira. Zuzenean esku hartzea jasotzen ari diren ikasleentzat prestatuak, eta aurrerako urteei begira baliagarri eta osagarri izango diren sekuentziak eraikiko dira.
- 4 urtetako ikerketa garatuko bada ere, urtez urte jasoko dira jardunean ateratako emaitza eta proposamen berriak.

Oraintxe azaldutakoak ondorengo taularen bitartez jarri dira laburbilduta:

1. GRAFIKOA

IKERKETA PROIEKTUAREN URRATSAK URTERO



5.- ESKU HARTZERAKO PROPOSAMENA

Jakin badakigu curriculum diseinuan ahozko generoen lanketari garrantzia handia ematen zaiola. Ahozkotasunak leku nabarmena du hezkuntza curriculumean. Dena dela, gaur egun oraindik zailtasunak ditugu hura irakasteko. Ez digute horretan irakatsi eta deseroso sentitzen gara, esku hutsik askotan. Oso urria da ahozkotasuna jorratzeko material didaktikoa. Teknologia berriak erabiltzea eskatzen digu ahozkotasunak (bideo kamerak, ordenagailuak, entzungaiak...), eta ez gaude horretara ohituta. Ahozko generoak ikasgelan lantzeko tresnak eta erosotasuna falta ditugu hezkuntzan.

Egitasmo honetan, hain zuzen, ezintasun horiek gainditzea ere nahiko litzateke.

Oso gerturik izanik ahozko komunikazioaren gaineko teoria berri eta berritzaileak, eskuartean izanik ahozko generoak lantzeko proposatzen zaizkigun metodologiak (Suitzako eskola) eta hurbil izanik unibertsitatearen jakintza teoriko zein praktikoa, interakzionismo sozio-diskurtsiboan (Bronckart 1985, 1996) oinarritzen den hizkuntza eta didaktika ikuspegia landuko da proiektu honetan. Hain zuzen, hezkuntza curriculumak eta ikastolek bultzatzen dutena.

Helduleku horietatik abiatuta eraikitzen da, beraz, ahozkotasunaren egitasmoa. Prestatuko diren jardueretan helburu komunikatiboak ezartzen dira, eta horiek izango dira, hain zuzen, gure norantza zedarrituko dutenak. Helburu komunikatiboak ezarri eta gauzatzuz ahozko hizkuntzaren gaitasunak landuko dira batez ere.

Izan ere, euskara ikasi bai, baina bere erabilera maiztasuna ez dator bat ezagutza mailarekin. Eraitza soziolinguistikoek argi utzi digute hizkuntza ezagutzeak ez duela erabilera bermatzen. Erabiltze gune eta uneak eraikitzea izango da, beraz, gure egitekoa. Eta bidenabar, erabilera ziurtatuko duten helburu komunikatiboak jartzea. Testuinguru ezberdinetan ahozko hizkuntza erabiltzeko aukerak eraikitzea dagokigu.


Konpetentziei erreparatuko badiegu, ahoz komunikatzeko dugun beharra ikaragarri da handia edozein esparrutan: lanean, ikastetxean, lagun artean... Testuinguru formal eta informaletan euskaraz eta ahoz komunikatzeko hainbat tresnaren beharrean gara herritar ugari, eta horixe erantzun nahiko lioke proiektu honek ere. Ahoz gustura eta ederki komunikatzeko trebetasunak garatzeko tresnak eman nahi dizkiogu Tolosako

ikasle gazteari, eta ahozko genero ezberdinak landuz, euskaraz ahoz jarduteko jokabide eta maiztasuna hobetu zein ugaritzea izango litzateke emaitza nagusietako bat.

Horrek zer eskatzen du? Testuinguru askotarikoetako jarduerak aurrera eramatea, hau da, ahozko testu formal eta informalak lantzea (adibidez, lagun arteko elkarrizketa eta irratiko elkarrizketa). Eta jarduerak gauzatzen ditugun une berean hizkuntzaren erabilerarekiko gogoeta piztea, erabilera bultzatzea eta konpetentzia askotarikoak erabiltzen ikastea: erabiltzea.

Ondorengo taulan zehazten denez, honelaxe banatzen dugu ikasturteko esku hartzea:

3. TAULA
URTE BAKOITZEKO ETA GELA BAKOITZEKO
LAN-DISEINUA



6.- EBALUAZIOA ETA ONDORIOAK

Urtean zehar eginiko lana ebaluatu eta ondorioak aterako dira ebaluazioaren fasean. Urteroko datuak baliagarriak izango dira unean bertan gauzatzen ari garen ikerketaren noranzkoa aztertzeko. Ikerketa aurrera joan ahala, berriz, gai izango gara aurrerabideak diakronian aztertu eta ondorioak ateratzeko.

Ebaluazio honetan honako edukiei emango zaie garrantzia gehien:

- **Ikastetxearen errealitateak baldintzatzen du? Zertan?**

Ikastetxeetako egoera soziolinguistikoen arabera ezberdintasunik ba ote dagoen eta zein den bere eragina.

- **Hizkuntzaren estatusak baldintzatzen du? Zertan?**

Hizkuntzaren gaineko aurreiritziak zertan diren eta horiek zertan eragiten duten.

- **Ikasleen adinak baldintzatzen du? Zertan?**

Adinak gai honetan eraginik ote duen: 12 urtetik 17ra arteko tartean zein errealitate ditugun.

- **Esku hartze motek baldintzatzen dute? Zertan?**

Ikasgeletan egingo diren esku hartzeen eragin maila zenbaterainokoa den jakitea da helburuetako bat.

- **Zein dira ahozotasuna sustatzeko praktika onak errealitate soziolinguistiko bakoitzean?**

Ahozotasuna landu eta bere erabilera sustatzeko praktika onen gakoak.

6.1.- IKERKETAREN LEHEN EMAITZAK

Aurre-diagnostikoan aurrez jarritako hainbat galderari erantzuteko parada izan dugu 2010/2011 ikasturtean, eta datu kuantitatiboak dagokienez, honelaxe laburtu dira emaitza aipagarrienak:

a) Ikasleen adinak baldintzatzen du ikasleen hizkuntza jarrera zein erabileran?

Aztertutako aldagaiak kontuan hartuta ikusi dugu erlazioa dagoela ikasleen adinaren eta hizkuntza jarreraren artean: bien arteko korrelazioa positiboa da. Gainera, esan daiteke adina gora joan ahala hizkuntzaren inguruko jarrera aldatzen joan dela.

Erabilerari dagokionez, berriz, ikasleen adina eta lagunarteko hizkuntza izan dira aldagaiak. Bi aldagai hauen korrelazioa ikusirik hipotesia baieztatuta gelditu da: adinak hizkuntza erabileran baldintza dezake. Estatistikoki erlazioa ahula bada ere, frekuentzietan ikusi dugu DBH 3. mailan hizkuntza ohitura aldatu egiten dela.

b) Ikastetxearen errealitateak baldintzatzen du?

Hasieran aipatu dugun moduan, Tolosa herriak ikerketarako marko anitza eskaintzen digu hiru ikastetxeen errealitate soziolinguistikoa ezberdina baita. Ikastetxea bera eta identitatearekin lotzen den baieztapena hartu ditugu kontuan datuak jasotzeko garaian. Bi aldagaien artean ikusi da erlazioa dagoela eta norabide berean dabiltzala, hau da, ikastetxearen arabera ikasleen jarrera ezberdina dela.

Ikastetxea eta hizkuntz erabilera uztartu direnean ere bi aldagaien arteko erlazioa baieztatu da, hots, ikastetxeetan hizkuntza erabilera ohitura ezberdinak antzeman daitezke.

Beraz, emaitza kuantitatiboen inguruan honakoa azpimarratu daiteke:

- Ikasleen hizkuntzarekiko jarrera adinarekin aldatu egiten da eta zehazki, DBH 1en agertzen den jarrera positiboa lausotu egiten da adina gora doan heinean.

- Hizkuntz erabilera maiztasun handiagoa dago DBH 1en eta DBH 3n, berriz, gaztelaniarako joera nagusitzen da. Beraz, ikasleen adinak baldintzatzen du erabilera.
- Ikastetxeen errealitate soziolinguistikoak hizkuntzarekiko jarreran zein erabileran eragina duela baieztatu da diagnostikoan.

Aurre-diagnostikoan ezarritako hipotesi denak bete dira maila kuantitatiboan, eta bide berean jarraitu dute maila kualitatiboan ateratako emaitzek. Ondorengo zerrendan agertzen dira ideia garrantzitsuenak:

- Gazteek hizkuntzaz hitz egiten dutenean hizkuntza mintzatuaz dihardute oro har. (Ez dute hizkuntza idatziaz hitz egiten, alegia. Horrek dirudi gaur egungo eskolako jarduera nagusiarekin kontraesanean dagoela; edo euskara bera hizkuntza erabilerarekin lotzen dutela).
- Hizkuntzaren edo euskararen garrantzia oso lotuta dago lurraldetasunarekin eta identitatearekin. Argudiorik garrantzitsuenak horiek dira. Hizkuntza ez da lotu jolasarekin, transmisioarekin, harremanekin...
- Hein berean, hizkuntza galeraren aurrean “salbatzaile” rola hartzen dute ikasle askok eta askok. Eta erabilerarekin lotzen dute.
- Hizkuntzaren jabekuntzarekin edo ikaskuntzarekin ere lotu izan da euskara: ama hizkuntza dutenek aipatu egiten dute, esplizitatu eta horrek eragin egiten die ondorengo baloraziotan.
- Beste batzuentzat asignatura bat da edo etxeke, eskolako edo kaleko hizkuntza bat. Espazio jakin batzuekin identifikatzen dute azken hauek euskara.
- Balorazioetan askotan ageri da “beharra” modalizatzailea: *salbatu beharrekoa; hitz egin beharrekoa; ikasi beharrekoa...* “-tzen duguna” eta gisakoak erabili ordez.

6.2.- ERRONKA BERRIAK

Ikerketaren lehen emaitzak jaso eta ikasturtea amaitzear dugun honetan, erronka berriak ezarrita ditugu 2011/2012 ikasturterako.

Ikerketaren ibilbidean bidelagun dugun Jarraipen Batzordean adostu da gazteen ahozko konpetentziak zertan diren eta nola hobetu daitezkeen ikertzeak eta esperientzia ezberdinen praktikak bideratzeak hartu beharko lukeela indarra. Pisu handiena gazteen hizkuntza konpetentzien eremuak hartzea nahi izan da, eta horixe da hain zuzen, hurrengo ikasturterako ezarrita dugun eginkizun nagusia.

Ikastetxeetako materialaren osagarritasuna

Datorren ikasturterako lana aurreratuz goazen honetan, ikastetxeetako curriculumak, maila bakoitzeko helburuak eta irakasleek darabiltzaten material didaktikoak aztertuta ditugu dagoeneko. Mintzola Fundazioaren ikerketa helburuekiko osagarritasuna bilatzen aritu gara eta sortuko den material didaktikoaren gainean erabakiak hartu dira: zein testu genero landuko den maila bakoitzean, zein testu mota, nolako erregistro mailak lantzea komeni den eta zein elkarrekintza motatan esku hartu nahi dugun.

Orotara, zortzi sekuentzia didaktiko sortuko dira; maila bakoitzerako bi. Eta aurrez hartutako erabakiaren arabera honakoak landuko dira maila bakoitzean:

4.TAULA

AHOZKO KONPETENTZIEN LANKETA

ESKU HARTZEA

MAILA	1. SEKUENTZIA	2. SEKUENTZIA
DBH 1	Testu generoa: kontaketa Testu mota: ipuina Ahozko jardun transakzionala eta formala	Testu generoa: elkarrizketa Testu mota: elkarrizketa Ahozko jardun interakzionala eta informala.
DBH 2	Testu generoa: argumentazioa Testu mota: iritzi trukea Ahozko jardun interakzionala eta formala	Testu generoa: kontaketa Testu mota: anekdota umoretsuak Ahozko jardun transakzionala eta informala
DBH 3	Testu generoa: literatur generoa Testu mota: poesia errezitaldia Ahozko jardun transakzionala eta formala	Testu generoa: azalpena Testu mota: azalpen zientifikoa Ahozko jardun transakzionala eta formala
DBH 4	Testu generoa: argumentazioa Testu mota: debatea Ahozko jardun interakzionala eta formala	Testu generoa: azalpena Testu mota: aitorpenak Ahozko jardun interakzionala eta informala

Ikastetxe bakoitzeko euskara mintegiko irakasle taldea eta Mintzolako teknikariak izango dira esku hartzea aurrera eramango dutenak. Mintzolako teknikarien gelak kontrol gelatzat hartuko ditugu (jarraipen xeheagoa egingo diegu), eta esku-hartze honetatik ondorengo informazioa jasotzea espero da:

- Irakasleon eta teknikarion erregistroa.
- Mintzolako ebaluazio txantiloia.
- Aurre-testuak eta ondo-testuak.
- Irakasleekin egingo ditugun bileretatik eskuratutako informazioa.

Esku hartzearen aurretik ikerketan parte hartuko duten irakasleei formazioa emango zaie non batez ere sekuentzia didaktikoak aurkeztu eta ezagutzeko baliabideak emango zaizkien eta zalantzak argitzeko aukera izango den. Jarduerei buruzko erregistroa eta

ebaluazioa egiteko metodologia zein izango den ere formazioan irakatsiko da. Haren ondotik ekingo zaio esku hartzeari eta ondorengo ebaluazioari.

Datorren ikasturterako, beraz, izango ditugu artikulu honetan galdegin ditugun zenbait galderen erantzunak, sortuko zaizkigu galdera eta eginkizun berriak. Ikuskizun datorkiguna eta eraikitzen ari garen laborategi honen fruituak. Epe motzean hurbil datozkigunak eta epe luzera begira badatozenak.

BIBLIOGRAFIA

Amorrortu, E., Orteaga, A., Idiazabal, I. eta Barreña, A., 2009, *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Bronckart, J.P., 1985, «La enseñanza de lenguas frente a sus contradicciones», in *Las ciencias del lenguaje: ¿un desafío para la enseñanza?*. Paris: UNESCO, 9-17.

Camps, A. eta beste., 2001, *El aula como espacio de investigación y reflexión: investigaciones en didáctica de la lengua*. Bartzelona: Graó.

Calsamiglia, H., 2007, *Las cosas del decir. Manual del análisis del discurso*. Bartzelona: Ariel.

Cestero, A. M^a. eta beste, 1998, *Estudios de comunicación no verbal*. Madril: Edinumen.

Chevallard, Y., 1985, *La transposition didactique, du savoir savant au savoir enseigné*. Grenoble: La Pensée Sauvage.

Cros, A. eta Vilá, M., 2001, «Ahozko hizkuntza: ebaluaziorako proposamenak». *Hizpide*, 48 (2001) 92-111. (Boni Urkizuk itzulua).

Dolz, J. eta Schneuwly, B., 1997, «Géneros y progresión en expresión oral y escrita. Elementos de reflexión a partir de una experiencia realizada en la Suiza francófona». *Textos de didáctica de la lengua y literatura* 11, (1997) 77-98.

Elliot, J., 1993, *El cambio educativo desde la investigación-acción*. Madril: Morata.

Eusko Jaurlaritza, 2007, “Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko Hezkuntzaren curriculum sortu eta ezartzekoa”. Dekretua.

Eusko Jaurlaritza, 2007, *Derrigorrezko eskolaldirako Euskal curriculum. Oinarrizko txostena*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, 1999, “Hezkuntza sistemak: Oinarrizko Curriculum Diseinuak”. Curriculum arteko estalduraren ikerketa lana.

Martínez, M. eta beste, 2009, *Ikasleen eskola giroko hizkuntza erabileraren azterketa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Sainz, M., 2002, «Hizkuntza didaktikaren erronka berriak». *Hik Hasi*, 8 (2002) 6-21.

Schneuwly, B. eta Bain, D., 1998, «Mecanismos de regulación de las actividades textuales: estrategias de intervención en las secuencias didácticas». *Textos de didáctica de la lengua y literatura*, 16 (1998) 25-46.